

KATUTXO BATEN ZORITXARRAK¹

Katu zuri-zuritxo bat
bere *izaeratik* harat
gogoan dut nola lagun
izan ohi genuen legun,
buztana jasoz *graziaz*
bere katu-fantasiuz
jolas-ordua alaituz
eta *aurpegiak* argituz.

Gure pasealekura
zitzaigun poz-pezik biltzen,
bat gehiago baitzen hura
eta hala zen hurbiltzen;
eta isilik zihoan,
buztana gida goi-goian,
bere *ñilera* zaluan
pozezko bake-zantzuan.

Ez zen ez haserrekorra,
bai, ordea, maitekorra,
ez *aurpegi* *ñuneko*,
kateme *esker* onekoa:
jaio eta berehala
bere amatxo galdurik,
esne hutsez hazi ahala,
bertan ondo ekandurik.

¹ Hemen kontatzen dena benetakoa da, orain dela hogeita hiru bat urte gertaturikoa.

Gure *etxeko* baratzea
zaintzen al bait seguruen,
saguak ikaratzea
nola ofizio zuen;
ez zen bat ere ageri
haren ehiza-esparruan,
izua sartzen deneri
ari baitzen inguruan.

Bibotea erakutsiz
ehizan fin eta serio,
sagu artean herio
izu-ikara handia utziz.
Gero atsedeen-egarriz,
gure pauso *hotsa* igarriz,
gugana zetorren pozik;
ez zuen une *hura* baizik.

Otsaileko arratsean,
dena zen ilun antzean;
leihoaz handik marruak:
bortxaketa-amorruak
ala *igurzpen-txirrioak*,
amodio-txilioak?
Agian, tratu ankerrak,
edo *ilunpetako* gerrak.

Festetako bortxaketak...
non jarriko salaketak?
Gauza da katu onbera
ez zela ez lehengo bera:
ilundu begitartea,
utzi ote elkarteak?
Eta nonbaiten gorderik,
non aurki haren orderik?

Behin agertua zen baina,
 ez zen lehen bezain apaina:
 ez betiko traza hura,
 ez eta katuzko *ixura*:
 gorputza baldar antzean
 bortxaz hala geratzean;
 leku baten bila laster
 hasi zen bazterrik bazter.

Katuak umeak ditu,
 bost pilotatxo erditu
 baztertxo ilun batean,
 luma leun goxo artean;
 behin-behineko txokoa zen
 sekretuzkoa, hain zuzen;
 lehenbizi toki aparta,
 gero dator zalaparta.

Obratan hasiak dira;
 langileak inguruan
 katutxoei begira;
 katemetxoak, orduan,
 salbamendura jo behar:
 umetxoak banan-banan
 ahoan hartuz, hor zehar
 atzerrira zeramatzan.

Baina *bark* ekin eta ekin,
 berriro umeak egin
 ohol zahar batzuen azpian,
 zizareekin nahasian;
 baina berriz zoritxarra
 eta *amatxoren* negarra:
 lata multzoa kiskaldu,
 umeak betiko galdu.

Belar siku eta zakar,
 multzo bat begiztaturik,
 hara daramatza dar-dar,
 han ongi ezkutaturik;
 gordeleku ziurra nahi
 eta bertan zoritxarra:
 zakar multzoan erregai
 sumendiko ke-negarra.

Azkenik hirugarrenez,
 ortuko *etxola* zaharrean,
 etsian halabeharrez
 hantxe horma bazterrean.
 Eta drama garratzena:
 katemearen atzena
 pozoi gaiztoa *irentsirik*,
 lau umetxo erkin utzirik.



Epitafio bat jarriko
katu finaren omenez,
hain bizimodu larriko
bertuterik hoberenez:
izarrak beti ere etsai,
baina kemen izan duzu,
nabian tinko eta ernai;
asko ikusia zara zu.

Luis Baraiazarra Txertudi
2017ko irailean